

Nola bizi seriezale amorratu batekin

SERIEZALE AMORRATUOI atal bat bestea-
ren jarraian ikusteko egun osoa etxetik
atera gabe egotea normala iruditzen
zaigu. Baita lagunekin edo familiakoekin
genituen hitzorduei uko egitea ere, asteko
atalari hutsik egin nahi ez diogulako. Wal-
ter white, Desmond, McNulty edo Tony
Sopranori hurrengo astean zer gertatuko
ote zaien ez dakigulako, lorik ere ez egi-
tea. Edo gure telesail gustukoena Emmy
saria eramango duen ala ez jakiteko gau-
pasa luzeak egitea.

Guretzat “naturala” da, baina gurekin
bizi den jendearentzat, –eta demagun 20
telesail batera ikusten ez dituztenentzat
(hemendik aurrera “jende arrunta” deitu-
ko diegu)– zerbait arraroa edo ezohikoa
da. Kondairak dio seriezaleak eta perso-
na arruntak bizi litezkeela elkarrekin,
badirela zenbait kasu munduan. Ez da
erraza, baina ba omen daude.

Zaletasun kontrolaezin hori jasan behar duze-
non tokian jartzen saiatuko naiz, eta bide batez, ea
gai zareten gure bitxikeriak ulertzen. Ziur nago tera-
pia erabilgarri bihurtuko dela. Bide batez, elkarrekin
sor dezakezue: “Kaixo, nire izena Tamara da eta ni
ere seriezale batekin bizi naiz”.

● **Asteko egunik okerrera, guretzat onena...
“Azkenean iritsi da astelehena”.** Bai, aukera asko
dago astakeria hori seriezale baten ahotik entzuteko.
“Jende arruntari” erokeria iruditu arren, guretzat,
astelehena egunik gogokoenetarikoa da. Argibidea
oso erraza da: AEBetako hainbat telebista katek
arrakasta handien duten telesailak igandeetan emiti-
tzen dituzte. Hori dela eta, astelehenetik aurrera
dauzkagu ikusgai hemen (*The Walking dead*, *Home-
land*...). Astelehena, ustegabeko egun zoragarri hori.

● **“Beste atal bat eta banoa lotara...”.** Zenbat
aldiz entzungo zenuen esaldi hau goizeko 2:00etan?
Berdin dio hurrengo goizean, 8:00etan esnatu behar
izatea. Gupidagabeak gara. *True detective*-ren maratoni
baten erdian baldin bagaude, ea nor ausartzen den
esaten telebistak hor jarraituko duela hurrengo egu-
nean eta uzten dugun puntutik jarrai dezakegula.
Atalak ikusi eta ikusi arituko gara atsedetik gabe,
munduaren amaiera iristear egongo balitz bezala.
Eta apokalipsia iritsi baino lehen, behar dugun lehe-
nengo gauza atala nola amaituko den jakitea da.
Soluzioa? Onartu, oherako bidea bakarrik hartu
beharko duzue. Edo bestela esna eutsi leher egin
arte, eta hurrengo egunean begi-zuloen kontrako
krema erabili.



● **Elkarrekin ikusten duzuen telesail baten
atala, bakarrik ikustea desleialtzat hartuko da.**

Lost elkarrekin ikusten baduzue, atal bat zure kabuz
ikustek hondamendira eramango zaitu, eztabaida
erraldoi eta kontrolaezin batera. Ezta bururatu ere!

● **Bizitza soziala, zer da hori?** Telesailak ikusten
inbertitzen den denbora, beste edozeri eskaintzen ez
zaion denbora da. Momentuz lan egitea beharrezkoa
da guztiontzat. Bestalde, badaude zeregin saihestez-
in batzuk, lo egitea adibidez. Beraz denbora hori
beste nonbaitetik “lapurtu” behar da: bizitza soziale-
tik. Zuk, pertsona arrunt horrek, esango duzu:
“Eguraldi bikaina dugu, joango al gara lagunekin
paseatzera?”. Gure erantzuna: “*Sons of anarchy* ikus-
ten ari naiz eta Jax Teller irlandarrarekin tratua ixte-
ko zorian dago, benetan uste al duzu gogoia dudala
horretarako?”.

● **Jarrai ezazu (gutxienez) ikusten dugun tele-
sail bat, elkarrizketetatik kanpo geratu nahi ez
baduzu behintzat.** Lagunekin zaudenean, elkarrizke-
ta telesail baten ingurukoa bada eta kasualitatez
jarraitzen ez baldin baduzu, estralurtar sentituko
zara. “Ikusi al duzu *True Detective*-n plano zoragarri
hori?”. “Ezin dut sinistu ere egin *Breaking bad* nola
amaitu den...”. Elkarrizketa hauen guztien parte sen-
titu nahi baduzu, egin dezakezuen gauzarik onena
gutxienez telesail horietako bat jarraitzea da. Bestela
zertaz hitz egin zenuen mundu guztiak
“*Game Of thrones*-en ezkontza gorria”
aipatzen zuen bitartean? ■



Gaizka Izagirre